

DONIBANE KIROL ELKARTEKO ESTATUTUAK

INDIZEA

I. TITULUA. IZENA, IKURRAK, HELBURU SOZIALA, ESPARRUA ETA HELBIDEA	2
II. TITULUA. BAZKIDEAK	2
1. Kapitulua: Bazkideak onartu eta baztertzea	2
2. Kapitulua: Bazkideen eskubideak eta betebeharrak	3
3. Kapitulua: Disziplinako araubidea	4
III. TITULUA. ELKARTEAREN GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA	6
1. Kapitulua: Batzarre Orokorra	6
2. Kapitulua: Zuzendaritza Batzordea	8
3. Kapitulua: Presidente eta presidenteordea	11
4. Kapitulua: Idazkaria	11
5. Kapitulua: Diruzaina	12
6. Kapitulua: Batzordekideak	12
IV TITULUA. ATALAK ETA DELEGATUEN BATZORDEA	12
V TITULUA. ELKARTEKO BESTE ORGANOAK	13
VI TITULUA. HAUTESKUNDE ARAUBIDEA	13
VII TITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA ONDAREA	14
1. Kapitulua: Araubide ekonomikoa	14
2. Kapitulua: Ondarea	15
VIII TITULUA. BAZKIDE IZAERA BESTE BATI UZTEKO ESKUBIDEA	15
IX TITULUA. ELKARTEAREN LIBURUAK	16
X TITULUA. ELKARTEA DESEGITEA	16
AZKEN EDAPENA	17

I. TITULUA. IZENA, IKURRAK, HELBURU SOZIALA, ESPARRUA ETA HELBIDEA

1. artikulua.- Izaera zibileko Elkartea da "AGRUPACION DEPORTIVA SAN JUAN/ DONIBANE KIROL ELKARTEA" deitua, bere nortasun juridikoaren jabe, iharduteko gaitasuna duena eta denbora mugarik ez.

Estatutu hauek arautzen dute Elkartea, aplikagarri zaizkion legeak eta xepaneak bazteru gabe, eta zein ihardueratan parte hartu, haietako arauak betetzeko asmoa du.

Elkartearen ikur bereizgarriak dira kolore berdea eta txuria, himnoa, bandera eta armarría.

2. artikulua.- Hauek dira Elkartearen xedeak:

- Bazkideei aisia, josteta eta atsedenerako lekua eskaintzea, baita horretarako instalazio egokiak ere.
- Kirolak, ariketa fisikoak eta josteta bultzatzea bazkideetan, bai banaka bai taldean edo modu antolatuan, non bere zaletasunen arabera, Elkarteko talde, ekipo eta atalean parte hartuz, eta horretarako, behar adinako instalazio egokiak jartzea.
- Ekimenei kasu egin eta bazkideen kultur iharduerak, josteta eta harremanak sustatzea, dituen instalazio eta baliabideak haien esku utziz.

3. artikulua.- Iruñeko hiria du bere lurralde esparrua, nahiz eta Elkarreak beste edozein tokitan garatu ahalko dituen bere helburu soziala betetzeko behar diren iharduerak.

4. artikulua.- Elkartearen helbidea instalazioak dauden tokiena da, Antso Azkarra etorbidea, z/g, 31011 Iruña, alegia.

5. artikulua.- Elkarreak ez du irabazteko asmorik, eta bere iharduketa eta funtzionamendua askatasun, berdintasun, justizia, elkartasun eta barne demokrazian oinarritzen dira.

II. TITULUA. BAZKIDEAK

1. Kapitulua. Bazkideak onartu eta baztertzea

6. artikulua.- Bazkide izanen dira, izaera hori dutenez gain, bazkide izateko eskaera egin eta Zuzendaritza Batzordeak onartzen dituenak, estatutu hauek onartu eta horien beharkizunak betetzen badituzte, horien arrear eta nahitaez, sarrera kuota ordaintzearena.

Edozein arrazoi dela bide, Elkartetik atera diren bazkideek, zituzten eskubide guztiak duko dituzte. Beraz, berriro sartu nahi izatera, bazkide berriei eskatzen zaizkien beharkizun guztiak beharko dituzte bete, sarrera kuota ordaintzearena barne, eta Elkartetik kanporatuak izan badira, Batzarre Orokorrak beharko ditu onartu.

Bazkideen artean heldu, gazte, kozkortu eta haur kategoriak daude. Bazkide helduak edo eskubide osokoak, 18 urtetik goitikoak dira. Bazkide gazteak 14 eta 17 urte bitartekoak. Kozkortuak, 6 eta 13 urte bitartekoak, Haurrak, 2 eta 5 urte arteko bazkideak.

7. artikulua.- Eskubide osoko bazkide izateko pertsona fisikoa izan behar da, adinez nagusi eta iharduteko gaitasuna izan.

Kozkortu eta haur kategoriako bazkide izateko aita, ama edo legezko ordezkari baten menpe egon beharko da, eta horrek ere bazkide beharko du izan.

Bazkide guztiei karneta emango zaie, titularrak berak soilik erabiltzekoa bere izaera frogatzeko; nahitaez aurkeztu beharko da instalazioetan sartzeko eta enplegatuek edo baimendutako edo- zeinek eskartzen duten aldiro.

8. artikulua.- Ondoko edozein arrazoigatik galduko da bazkide izaera:

- Heriotzagatik.
- Norberaren borondatez.
- Hileko lau kuota, segidakoak ala ez, ordaindu gabe izateagatik. Aldez aurretik ordaintzeko errekimendua eginen da, epea adieraziz, eta Elkarteko artxibategian jasota den helbidean jakinaraziko zaio interesatuari.
- Disziplinako arrazoietan oinarrituz, estatutu hauetan aurrikusitako moduan Elkartetik kanporatuta, beti ere espedientea egin eta interesatuari entzutea eman ondoren.

2. Kapituluua. Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

9. artikulua.- Bazkide guztiek, zein bere kategorian, tratu bera izanen dute, sexu , arraza, ideologia, hizkuntza edo nazionalitateagatik inongo diskriminaziorik gabe, ezta beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik ere.

10. artikulua.- Eskubide osoko bazkideek, oro har, eskubide hauek dituzte:

1. Elkartearen xedea osatzen duten helburuen atzetik parte hartzea.
2. Elkarteko instalazio eta zerbitzuak erabili eta haietaz baliatzea, segurtasun eta higiene baldintzetan, baita bi urte ez duten seme-alabekin edo menpekoekin ere. Horiek dohainik sartuko dira instalazioetan bi urte egin arte.
3. Arrazoitutako iradokizun, proposamen eta kexak egitea Zuzendaritza Batzordeari.
4. Entzunak izatea zehapen espedientea irekitzen zaienean.
5. Informazio ekonomikoa hartzea, arrazoitutako eskaera egin ondotik; baita aurreko ekitaldiko kudeaketaren kontuen laburpena eta urteko ekitaldiko aurrekontuaren proposamena izatea ere. Batzarre Orokorra egin aurretik.
6. Elkartearen ihardueren berri izan eta organoen bilkuretako aktak aztertzea.
7. Estatutuen aurkakotzat jotzen dituen erabaki eta iharduketak inpugnatzea, haiek gertatu eta hogeita hamar eguneko epean.
8. Bere bazkide izaera eta legearen arabera menpekoak dituen adin txikikoen bazkide izaera, hala ez diren beste batzuei ematea, hartzaileak sartzeko ordainduko duen zenbatekoaren zati batean parte hartuz, eskubide hori arautzen duten estatutuaren arauetara jarraituz.
9. Modu antolatuan, atal, talde eta ekipoen bitartez, Elkartean egiten diren kirol, aisia eta bestelako ihardueratan parte hartzea, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako arauetara jarraituz.

10. Elkartea gobernatu eta administratzeko organoetan hautzaile eta hautagai izatea, estatutu hauetan erabakitako moduan.

11. Nahi dutenean, haien ezkontideak, seme-alabak eta gurasoak bazkide egin eta Elkartea beren borondatez uztea.

11. artikulua.- Bazkide gazte, kozkortu eta haurrek eskubidea dute instalazioak erabili eta Elkartearen ihardueretan parte hartzeko, haien adinari dagokion moduan eta Zuzendaritza Batzordeak haientzat hartzen dituen arauei jarraituz.

Bazkide gazteek botoa emateko eskubidea dute 16 urtetik aitzina, baita Zuzendaritza Batzordeari iradokizun, proposamen eta kexak aurkezteko ere, haiek arrazoiz azalduta. Entzunak izateko eskubidea ere badute zehapen espedientea irekiz gero.

12. artikulua.- Bazkide guztiak, edozein dela ere haien kategoria, behartuta daude:

1. Elkarteko organoek zilegitasunez hartutako Estatutu, Arau eta Erabakiak betetzera.

2. Gainerako bazkide eta enplegatuekin zuzen eta begirunez jokatzera.

3. Elkarteko instalazio, ondasun eta zerbitzuak kontuz eta txukun erabiltzera, ezarritako arauei jarraituz.

4. Bere datuetan, helbidean gertatzen den edozein aldaketa edo Elkartearentzat garrantzia eta bere bazkide izaera edo kategorian eragina duen beste edozein inguruabar jakinaraztera.

5. Kuotak, ezarritako epean eta moduan ordaintzera. Bestelakoan, derrigorrezko kuotez gain %15eko errekarua oraindu beharko da, gehi sortutako gastuak.

3. Kapituluua. Disziplinako araubidea.

13. artikulua.- Estatutu, Arau eta Erabakien aurkako ekintzak, behar bezala tipifikatuak, hutsegitearen larritasunaren araberrako zehapenez zigortuko dira.

Hutsegiteak dira arau-hauste hauek:

- Elkarteko bazkide, erabiltzaile eta enplegatuei egindako iraniak eta haienganako begirune eza.
- Instalazio eta zerbitzuak gaizki erabiltzea.
- Elkartearen ondasun eta instalazioetan edo bertan utzitako beste norbaitenetan kaltea edo galerak sortzea.
- Bazkide txartela behar ez bezala beste bati uztea.
- Elkarre barrenean sesio, istilu, eskandalu eta gatazkak eragin edo haietan parte hartzea.
- Elkarre barrenean drogak kontsumitu eta haiekin trafikatzeta eta mozkortzea.
- Jabetzaren aurkako hutsegite eta delituak.
- Elkarteko ohiko iharduerak behar bezala egin daitezten galarazi edo oztopatzen diruzten ekintzak.
- Elkartearen interes orokorren aurkako ihardukera eta omisio bidegabeak edo haien kalterako dinerak.

- Ezarritako zehapena ez betetzea.
- Antzeko beste edozein arau-hauste.

14. artikulua.- Hutsegiteak, arinak, larriak edo oso larriak izan ahalko dira egintzen garrantzia eta larrisatuna, haien ondorioa eta eragina eta baloratzeko diren antzeko beste inguruabarrak kontutan hartuta.

15. artikulua.- Hutsegiteak kalifikazioaren arabera zehatuko dira eta kontutan harutko dira arau-haustailearen errua, haren asmo txarra, adina eta gaitasuna, errepikatzea edo berrerortzea, eta beste inguruabar aringarri edo astungarriak.

16. artikulua.- Honela zehatuko dira hutsegiteak, kalifikazioen arabera:

- Arinak, idatzia kargu hartuz , edo 1-30 egunez instalazioetara sartu eta haiek erabili edo probetxatzea debekatuz, edo epe berean eskubide sozial guztiak kenduz.
- Larriak, 30-180 egunez instalazioetara sartu eta haiek erabili edo probetxatzea debekatuz, edo epe berean eskubide sozial guztiak kenduz.
- Oso larriak, 180 egunetik 2 urte bitarte eskubide sozial guztiak kenduz, edo Elkartetik kanporatuz.

17. artikulua.- Edozein direla ere errua eta hutsegitearen larritasuna, arauhausleak edo haren legezko ordezkariak, horrelakorik izanez gero, egindako kaltea konpondu beharko du.

18. artikulua.- Honela iraungiko da hutsegiteen erantzukizuna:

- Zehapena betez.
- Hutsegiteak iraungiz.
- Zehapenak iraungiz.
- Arau-hauslea hildakoan.
- Helgite egokiaren ondorioz zehapena kenduta.

19. artikulua.- Hutsegite arinak bi hilabeteren buruan iraungitzen dira, larriak sei hilabeteren buruan eta oso larriak, urtebetera. Espedientea irekitzea erabakitzen den unean eteten da preskripzioa, eta epea berriz hasiko da kontatzen espedienteak bi hilabete baino gehiago geldirik egonez gero.

20. artikulua.- Ezarritako zehapenak sei hilabete, urtebete, eta hiru urteren buruan iraungitzen dira, hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan, hurrenez hurren.

21. artikulua.- Hutsegite arin edo larritzat har daitekeen arau-hauste baten berri izan orduko, Zuzendaritza Batzordeak, edo horren ordekoak, berehala erabakiko du interesatuari entzudea eman ondoren.

22.- artikulua.- Egindako arau-haustea hutsegite oso larritzat har daitekeenean, Zuzendaritza Batzordeak espedientea irekitzeko erabakia hartuko du, gertatuak argitu eta erantzukizunak banatzeko. Horretarako, instruktorea eta idazkaria izendatuko ditu eta interesatuari, leporatutako gertaerak eta egindako izendapenak jarkinaraziko dizkio eta entzutea emanen.

Instrukzioa amaitutakoan, Zuzendaritza Batzordeak behar den erabakia hartuko du espedientetik ondorioztatzen denari jarraituz. Erabaki hori idazkiz jakinaraziko zaio interesatuari.

Ezartzen den zehapena, indarra hartu eta biharamunean hasiko da betetzen.

Egindako hutsegitea, inguruabarrak eta izan ditzaken kalifikazioa eta zehapena kontutan hartuta, Zuzendaritza Batzordeak, bere iritzia arabera, erabakia hartu ahalko du espedientaturiko bazkidea instalazioetara sartu, haiek erabili eta probetxatzea galarazteko edo eskubide sozial guztiez gabetzeko espedientea tramitatzen den bitartean, eta bi hilabetez gehienez ere. Denbora hori zehapen barrenean kontatuko da, zehapenaren izaerak horretarako bide ematen badu.

23. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak edo horren eskuordetza duenak ezarritako zehapen guztiei berraztertze helegitea jarri ahalko zaie hamar egun naturaleko epean, eta hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenak izan eta berraztertze helegitea etzetsi bada, gora jotzekoa jarri ahalko da. Batzarre Orokorrean, egiten den lehenbiziko bilkuran, arruntean zein berezian. Gora jotzeko helegitea, berraztertzekoa ezetsi izana jakinarazi eta 30 eguneko epean aurkeztu beharko da.

24. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, behar bezala arrazoitutako erabakiaren bitartez, Elkartearen gogokoak ez direla deklaratu ahalko ditu bazkide ez direnak. Kasu horretan, erabakiaren berri emanen zaio, ahal bada, interesatuari. Ez du Elkartean sartzerik izanen eta inoiz, bazkide izan nahi badu, kanporatutakoen baldintza berberak bete beharko ditu.

III. TITULUA. ELKARTEAREN GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

1. Kapituluak. Batzarre Orokorra

25. artikulua.- Batzarre Orokorra da Elkartea gobernatzeko subirano eta goren.

26. artikulua.- Batzarre Orokorren parte dira, hizpide eta boto eskubidea dutela:

- Zuzendaritza batzordeko kide guztiak.
- Bazkide izaten jarraitzen duten elkarteko presidente ohiak.
- Atal bakoitzeko delegatua.
- 33 konpromisario, boto eskubidea duten mila bazkideko talde edo zati bakoitzeko.

Bazkideak talde horiei atxikiko zaizkie, antzinatasunaren arabera.

Talde horietako bakoitzean, hautagai direnen artean aukeratuko dira 33 konpromisarioak, boto eskubidea duten taldeko edo zatiko bazkide guztien bozketa unibertsal, libre, zuzen, berdina eta ezkutukoaren bitartez.

Batzarre Orokorra osatzen duten guztien botoa pertsonala da eta inori utziezina.

27. artikulua.- Batzarre Orokorra lau urtetarako hautatuko da, Zuzendaritza Batzordea hautatzen den aldi berean.

28. artikulua.- Batzarre Orokorra arrunta eta berezia izan ahalko da.

29. artikulua.- Batzarre Orokorraren eraketak balioa izateko, kideen gehiengoak hartu beharko du parte lehen deialdian eta edozein kopurukoa bigarreanean.

Elkarteko presidentek, Zuzendaritza Batzordea lagun duela, zuzenduko du Batzarre Orokorra.

30. artikulua.- Urtean behin eginen da Batzarre Orokor arrunta lehenbiziko lauhilekoan, txosten ekonomikoa eta iharduerena, balantzea eta aurreko ekitaldiko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua eztabaidatu eta onesteko, baita galderen erreguetarako ere.

31. artikulua.- Batzarre Orokorraren beste edozein bilkura berezia izanen da eta Zuzendaritza Batzordeak edo batzarkideen ehuneko hogeia osatzen dute bazkideek egi ahalko dute hartarako deia.

Azken kasu horretan, eskaera idazkian aurkeztuko da eta eskatzaileen sinadurak egiaztatu beharko dira. Nahitaz sartuko dira proposatutako aferak eguneko zerrendan eztabaidatu eta bozka daitezten, eta beranduenez, eskaeratik bi hilabetera egin beharko da Batzarre Orokorra. Zuzendaritza Batzordeak eginen ditu behar diren kudeaketak Batzarre Orokorrerako, deialdia egiten dutenek finkatutako oinarri jarraituz.

32. artikulua.-Zuzendaritza Batzordeari dagokio Batzarre Orokorrerako deialdia egitea, arrunta edo berezia izan. Idatzia jakinarazi beharko zaie kide guztiei, hura egin baino hamabost egun natural lehenagotik bederen eta Elkartearen iragarki oholean argitaratuko da.

Deialdian, tokia, eguna, ordua eta gai zerrenda ageturko dira. Lehen deialdiarekin batera, badaezpadakoan, bigarrenerakoa ere egin ahalko da, eta horrelakoan, ordu erdi bat utzi beharko da bien artean.

Ezin izanen da erabakirik hartu eguneko zerrendan sartuta ez dauden gaiei buruz. Batzarre Orokorreko kide diren bazkideek eskatuta egiten bada deialdia, gehienez hiru pertsonako batzordea izendatuko dute haien eskaeraz zerrendan sartutako gaia(k) Batzarre Orokorrari azaltzeko.

33. artikulua.- Hauek dira Batzarre Orokorraren eskumenak:

1. Estatutuak aldatzea.
2. Elkarteko presidentea, Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak eta kontuhartzaileak kargutik kentzea.
3. Bazkide kategoria guztien hilabeteko kuota arruntak finkatu eta aldatzea, baita kuota bereziak edo derramak ere.
4. Elkartearen aurrekontu arruntak zein bereziak, kontuak, balantzeak, txosten ekonomikoa eta iharduerena aztertu eta onestea.
5. Ondasun higiezinak erosi, besterendu eta trukitzea eta hipotekak eratzea haien gainean.
6. Diru maileguak hartzeak eta zor tituluak jaulkitzea, zenbatekoa Elkartearen urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeia baino handiagoa denean.
7. Obra eta instalazio berriak eta urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeitik goitikoak direnak onestea.

8. Elkarte desegin edo beste batekin batzeko erabakia hartzea.

9. Helegiteak ebaztea.

34. artikulua.- Bertaratutakoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak Batzarre Orokorrean. Alabaina, bertaratzen direnen hirutik biren gehiengo beharko da estatutuak aldatu, beste elkarte batekin batu eta ondasun higiezinak besterentzeko erabakiak hartzeko. Elkarte desegitea erabakitzeko, hirutik biren gehiengoak Batzarre Orokorreko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua beharko du izan.

35. artikulua.- Bozketak jendaurrekoak edo isilpekoak izan ahalko dira, eta presidentek hautatuko du sistema.

2. Kapituluua. Zuzendaritza Batzordea

36. artikulua.- Batzarre Orokorrearen ahalmenez ezarritakoa galarazi gabe Zuzendaritza Batzordea da Elkarte gobernatu, haren kudeaketa ekonomikoa egin eta administratzeko organo kolegiatua, eta presidenteordeak, idazkariak, diruzainak eta gutxienez sei batzordekideek eta gehienez hamarrek osatuko dute.

37. artikulua.- Batzordekideak lau urtetarako hautatuko dira Batzarre Orokorreko konpromisarioak hautatzen diren aldi berean, eta beste lau urtetarako bakarrik hautatu ahalko dira berriz ere.

38. artikulua.- Bazkide helduak edo eskubide osokoak izan daitezke hautagai Zuzendaritza Batzordearen kargurako.

39. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak, bere kargualdiak dirauen bitartean, ahalmena izanen du gehienez ere hiru postu betetzeko, eta ondoren horren berri eman beharko dio Batzarre Orokorriari.

Zuzendaritza Batzordeko kide batek kargua uzteko, nahitaez aurkeztu beharko du idatzia bere asmoa, zein arrazoik bultzatu duten horretara azaltzen duela.

Zuzendaritza Batzordeak eskurantzia izanen du, presidentek proposatuta, hutsegiterik duten Zuzendaritzako kideak kargutik kentzeko. Halaber, konfidantza galdutakoan, eta presidentek proposatuta ere, kendu ahalko ditu kargutik eta horren berri Batzarre Orokorriari eman.

Zuzendaritza Batzorde osoak uzten badu kargua, eta horren arrazoiak aurkeztu beharko dira Batzarre Orokorrean, ezin izanen die bere eginkizunei utzi eta Zuzendaritza Batzorde gisa jarraituko du Batzarreak ordezeko Kudeaketa Batzordea hautatu arte. Horren osaketa, agintealdia eta eginkizunak 44 eta 45. artikuluetan aurriskusten dira. Osoko dimisioa da Zuzendaritza Batzordeko kideen erdiek edo gehiagok batera egiten dutena, horien artean presidentea badago edo kideen hirutik bi badaude.

40. artikulua.- Aurkezten diren hautagai zerrendetan presidenteara da nahitaez agertu behar den kargu bakarra.

Presidenteak, presidenteordea, idazkaria eta diruzaina izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideen artean.

Hautagai zerrenda bat besterik ez badago, hura izanen da Zuzendaritza Batzordea, bozkatu beharrik gabe.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago badira, haietako bakoitzak azaldu beharko dizkie beren programa edo nondik-norako nagusiak bazkideei. Hori dela eta, eskubidea dute bazkideen zerrenda izateko eta azalpen horretarako behar dituzten Elkarteko instalazioak erabiltzeko.

Zuzendaritza Batzordeko kideek ez dute ordainsarirako eskubiderik karguagatik, dohainik arituko baitira.

41. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearenak dira eskumen hauek:

1. Elkartearen orderazkari izan eta hura administratzea.
2. Zilegitasunez hartutako Estatutu. arau eta erabakiak aplikatzea, sortzen diren zalantzak argituz.
3. Bazkideak onartu, zehatu eta Elkartetik kanporatzea, Estatutu hauetan xedatutakoari jarraituz.
4. Sarrerako kuotak finkatu eta bazkide izaera hirugarrenen esku uzteko eskubideari dagokiona aplikatzea, baita, behar adinako arrazoiz, eskubide hori aldi baterako kentzea ere, horren berri hurrengo Batzarre Orokorrean emanez.
5. Batzarre Orokor arrunt zein berezietarako deialdiak egitea, presidenteari haien kudeaketan laguntza eman, eta erabakitakoa betetzea.
6. Hauteskunde orokorretarako deialdia egitea, gaiaren garrantziak hala eskatzen duenean.
7. Batzarre Orokorrari, ekitaldi ekonomikoak eta kontuak, aurrekontuak eta urteko txostenak, baita aurrekontu bereziak ere, onesteko proposamena egitea.
8. Aldi baterako edo aldi mugatu gabeko langile, teknikari eta beharginak kontratatu eta lanetik botatzea.
9. Beharrezkotzat jotzen diren obra proiektu eta exekuzioen enkargua egitea, instalazioak egin, hobetu eta kontserbatzeko eta zerbitzuen funtzionamendurako, baldin eta zenbateko ekonomikoa Elkartearen urteko aurrekontu arruntarren ehuneko hogeia baino txikiagoa bada.
10. Zerbitzuen kontzesioak hitzartzea Elkartearen izenean eta Elkartearentzat, sarrera eta errentamenduen prezioak jartzea xedapen horiei dagozkien neurriak hartuz.
11. Bere ahalmenak erabiltzeko behar diren eskritura publiko zein pribatu guztiak egin eta ematea, ongi iruditzen zaizkion itun, klausula eta baldintzak jarritz, baita aseguru polizak izenpetzea ere.
12. Kontu korranteak, aurrezki libretak eta ezarpenekoak ireki eta txekeak eta gainerako agiriak libratzea haien kargura egiten diren mugimenduetan.
13. Zor eta obligazioak aitortzea.
14. Dirulaguntzak eskatzea erakunde publiko baimenduei, pribatuei eta pertsoneri, eta Elkarteari zertan komeni, hartan erabiltzea.
15. Diru maileguak hartu edo zor tituluak jaulkitzea, Elkartearen urteko aurrekontu arruntaren ehuneko hogeia gaindutu gabe.

16. Instalazioen erabilera Elkartearen helburuetarako gordetzea, eta zehazkiago, txapelketak eta entrenamenduak egiteko, kontserbazio, mantenimendu edo beste edozein ihardueratako.

17. Atal guztien funtzionamendua eta iharduera zuzendu eta kontrolatzea, Elkartearen helburuak bete daitezen. Haien bilera edo batzarretan parte hartu ahalko du bidezkotzat iritzen badio, izendatzen d(ir)en batzordekide(ar)en bitartez.

18. Batzarre Orokorren esku soilik ez dauden ahalmen eta eskumen guztiak.

19. Eta oro har, Elkarteko iharduera guztiak sustatu eta garatzeko behar diren kultur, kirol, ekonomi eta administrazio neurriak kontratatu eta aplikatzea.

20. Elkartearekin eta haren helburuekin zerikusia duten beste guztiak, harentzat beharrezkoak edo komenigarriak badira.

42. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea hilean behin bederen bilduko da, presidenteak dei eginda. Horren berri emanen du Batzordeko idazkariak bilera baino 24 ordu lehenago, tokia, eguna, ordua eta gai zerrenda adieraziz. Hala ere, Zuzendaritza Batzordearen bilera eratutzat eman ahalko da haren kide guztiak Elkartean bilduta egonik, hala erabakitzen dutenean.

Batzordekideen heren batek eskaera eginez gero ere, hura biltzeko deia egingen da.

43. artikulua.- Bileran direnen botoen gehiengoz hartuko dira Zuzendaritza Batzordearen erabakiak. Presidenteak kalitate botoa izanen du bozketaren berdinketak hausteko.

Zuzendaritza Batzordea eratuta egonen da, gutxienez kideen erdiak elkartzen badira. Bilkura bakoitzeko akta jasoko da eta presidenteak eta idazkariak sinatuko dute hurrengo bilkuran edo batzordea egin eta ondoren.

44. artikulua.- Zuzendaritza Batzodeari kargua kendu ahalko zaio, Batzarre Orokor berezian onetsiako zentsura mozioa aurkeztuta. Zentsura mozioak Batzarre Orokorreko kideen ehunetik hogeien sinadura beharko du, abalatzeko.

Onesteko, Batzarre Orokorrean bildutakoen hirutik biren aldeko botoa beharko da, eta beti ere, aldeko botoak, gutxienez, batzarrekideen kopuruaren gehiengo absolutua izanen dira. Bai zentsura mozioaren aldeko jarrerak, bai kontrakoak, baldintza berdinetan azaldu eta bozkatuko dira Batzarre Orokorrean.

Arrazoitutako idazkian formulatuko da zentsura mozioa eta Elkartearen administrazio bulegoetan beharko da aurkeztu, Batzarre Orokorren deialdia egiteko eskaera barne dela. Hura, beranduenez, hilabeteko epean egin beharko da. Mozioak bost kideko Kudeaketa Batzordea izendatzeko proposamena eramanen du, kideen izenak eta batzordeburuaren kargua aipatzen dituela, mozioak aurrera eginez gero, Elkartearen gobernu eta administrazioa bere gain hartuko baititu bitarteko gisa, hurrengo hauteskundeetarako deialdia, Batzarre Orokorreko konpromisarioetarakoarekin batera, egin bitarte.

45. artikulua.- Zentsura mozioak aurrera eginda edo Zuzendaritza Batzordeak dimisioa aurkeztuta, Kudeaketa Batzordea hautatuko da, Zuzendaritza Batzordea adina kidez osatua, eta ordeztan duen organoaren agintaldia amaitu bitarte iraunen du.

Horrela izendatutako Kudeaketa Batzordeak Estatutuek Zuzendaritza Batzordeari emandako ahalmen berak izanen ditu.

3. Kapituluua. Presidentea eta presidenteordea

46. artikulua.- Presidentea da Elkartearen órgano beterezlea eta hura gobernatu eta administratzeko goi mailako organoen ordezkaria, eta haien erabakiak betetzen ditu.

47. artikulua.- Ahalmen hauek dagozkio presidenteari:

1. Presidenteordea, idazkaria eta diruzaina izendatzea, baita beste karguak ere, Zuzendaritza Batzordeko kideen artean eta haien kargu uztea proposatzea.
 2. Zuzendaritza Batzordeko eta Batzarre Orokorreko deialdia egin eta haien buru aritzea bateko eta besteko eztabaidak zuzenduz eta haien bilkurak jasoz.
 3. Elkartearen eta haren organoen legezko ordezkariak.
 4. Zilegitasunez erabakitako ordainketak agintzea.
 5. Egintza eta kontratuak Elkartearen izenean egitea, alde aurretik Zuzendaritza Batzordeak edo Batzarre Orokorrek onetsia dituela.
 6. Elkartearen sinadura erabiltzea ordezkari gisa eta ziurtagiriak, igorpenak eta kontuak ikus-onestea.
 7. Egoki iritziz gero, Elkartearen barrenean funtzionatzen duten atal, batzorde eta delegazioen buru aritzea.
 8. Langileei zuzendu eta aldi baterako lanetik kentzea, presakako neurria bada eta egindakoaren berri Zuzendaritza Batzordeari ematea.
 9. Presa dela eta, behar diren neurri guztiak hartzea, eta Zuzendaritza Batzordeari dei egitea informatu eta egindakoaren berri emateko.
- 48. artikulua.**- Presidenteordea arituko da presidentearen partez, kargua bete gabe edo hura kanpoan edo eri dagoenean.

4. Kapituluua. Idazkaria

49. artikulua.- Idazkariak eginkizun hauek beteko ditu:

- Batzarre Orokorren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretarako deialdien izapideak egitea.
- Batzarre Orokorren eta Zuzendaritza Batzordearen idazkari lanetan aritzea, bilkuretako aktak jasoz eta liburuen arduraren eramatea.
- Elkartearen urteko txostena idaztea.
- Ondasunen inbentario liburuaz arduratzea, baita bazkideen fitxategiaz eta Elkartearen dokumentazioko agiritziaz ere.
- Ziurtagiriak luzatu eta erabakiak igortzea, presidentearen oniritzia dutela.
- Eta oro har, Elkartearen funtzionamendu administratiboari dagozkion eginbehar guztiak. Idazkariaren ordezkariak Zuzendaritza Batzordetik izendatzen duen kidea arituko da, hura kanpoan edo eri eta kargua bete gabe dagoenean.

5. Kapitularia. Diruzaina

50. artikulua.- Diruzainak bere kargu izanen du Elkartearen fondoan mugimenduekin zerikusia duen guztia, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du eta kontuak itxiko ditu, hori guztia Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko. Bere erantzukizuna da Elkartearen balore edo gordai lu guzriak zaintzea.

Bere sinaduraz emanen du baimena Kontabilitate Liburuatarako eta Kutzako mugimenduz arduratuko da.

Bere kargua uzten duenean kontabilitatearen egoera orria egingen du.

6. Kapitularia. Batzordekideak

51. artikulua- Batzordekideak Zuzendaritza Batzordearen eginkizunetan hartuko dute parte eta, gainera, beren esku dituzten edo une bakoitzean eskuratzen dituzten atal, delegazio edo batzordeen kargu egingen dira.

IV.TITULUA. ATALAK ETA DELEGATUEN BATZORDEA

52. artikulua.- Helburu soziala betetzeko kormenigarri iritzitako atal guztiak sortu ahalko dira Elkartean, bai Zuzendaritza Batzordeak proposatua, bai bazkide interesatuen ekimenez.

Kirol arloko atalak Kirol Federazioei atxiki ahalko zaizkie, Zuzendaritza Batzordeak horren berri izan eta aldeko erabakia hartu ondoren.

53. artikulua.- Atal bakoitzak bere kasa funtzionatuko du, eta ahalmena dute beren iharduera nola garatu proiektatzeko, Zuzendaritza Batzordeak koordinatu eta zuzendurik. Atalek demokratikoki aukeratutako zuzendaritza organo kolegiatuak izan ahalko dituzte, baita funtzionarmendu arauak ere, Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak onetsi beharrekoak.

Inolaz ere ez dio inongo atalek aurrekontutik kanpoko gastuei ekingo eta, inguruabar bereziren batengatik horren beharrik badago, gastu horien konprometua hartu baino lehen, Zuzendaritza Batzordeari egingen dio eskaera, bidezkoa iritzen duena ebatzi dezan.

54. artikulua.- Atal bakoitzak bere delegatua izanen du ordezkari gisa, kideen artean proposatu era hautatua. Zuzendaritza Batzordeari eman beharko zaio hautaketa horren berri.

Atalak ez du baimenik inongo iharduerarik egiteko bere delegatuak ordezkatzeko ez badu.

55. artikulua.- Ataletako delegatuek Delegatuen Batzordea osatuko dute, atalen iharduerak behar bezala egin daitezzen zaintzeko, eta Zuzendaritza Batzordearen organo aholku emaile izanen dira atalei dagozkien arazoetan.

56. artikulua - Hauek dira delegatuaren eginkizunak:

- Urteko ihardueren programa prestatzea.
- Atalaren urteko aurrekontuaren proiektua egitea, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko.
- Egindako iharduera guztien urteko txostena, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko.
- Atalaren ordezkari izatea Elkarteko organoetan eta hirugarrenen aitzinean, atalaren iharduerari dagokionez.

- Ataleko kargudun, laguntzaile eta partehartzaileen urteko errolda egitea, Zuzendaritza Batzordeari aurkezteko.
- Ataleko materiala ahalik eta txukunen zaindu eta zain dezaten begiratzea, eta haren inbentarioa egitea urtero.
- Atalaren ordezkari izatea Delegatuen Batzordean.

V. TITULUA. ELKARTEKO BESTE ORGANOAK

57. artikulua.- Elkartearen eragiketa ekonomikoetan esku hartuko duen organo bat izanen da, Kontuhartzaileak deituko dena.

Organu hori hiru lagunek osatuko dute, Batzarre Orokorra hautatu eta egiten den lehen bileran aukeratu eta izendatua, eta kontuhartzaile berriak hautatzen direnean utziko diote karguari.

Lau urtetik behin berrituko dira kontuhartzaileak eta haien ahalmena Elkartearen iharduera ekonomikoa fiskalizatzea izanen da, haren berri eman beharko baitute behar diren txostenak Batzarre Orokor arruntean aurkeztua.

VI. TITULUA. HAUTESKUNDE ARAUBIDEA

58. artikulua.- Hauteskunde Batzordea da bertako presidentea hautatuko duen bost kideko organo kolegiatua, hauteskunde prozesua eta bozketak bereziki, behar bezala egin daitezten ardura duena; bozkatu nahi dutenak boto eskubideko bazkideak ote diren aztertuko du eta botoen kontaketa eginen, hori guztia aurkeztutako hautagai zerrenden interbentoreek zainduta.

Batzarre Orokorrak aukeratuko ditu Hauteskunde Batzordeko kideak hura hautatu eta egiten den lehenbiziko bilkuran eta Hauteskunde Batzorde berria aukeratzen denean utziko diote karguari.

59. artikulua.- Elkarteko organoetan kargua dutenek beren eginkizunetan jurrarituko dute ondorengoak karguaz jabetu arte.

60. artikulua.- Hauek, hauteskunde prozesuaren ekintzak dira:

- Boto eskubideko bazkide guztiei hauteskundeetarako deialdiaren berri ematea, hauteskunde egutegiarekin batera.
- Hautagai zerrendak onartu eta argitaratzea.
- Boto eskubideko bazkideen bozketa.
- Hautetsiak alkarrikatzea.
- Aurkezten diren erreklamazio eta eskaerak ebaztea, jurisdikzio arruntean aurkez daitezten galarazi gabe.

61. artikulua.- Hauteskundeerako deialdia egiten den egunetik haiek egin baino 30 egun lehenago arte izanen da epea hautagai zerrendak aurkezteko eta, beti ere eta gutxienez, 30 egun iraunen du.

Konpromisariogai diren bazkideek idatziz aurkeztu beharko dute haien kandidatura, bozketarako finkatutako eguna baino hogeita hamar egun lehenago. Hautagai nahikoa ez badago, besterik gabe hautatuko dira aurkezten direnak eta zozketak gainerakoak, estatuetan aurrikusitako kopurua osatu arte, mila bazkideko talde edo zati bakoitzaren barrenean.

Hautagai zerrenda itxi eta osoaren bitartez aukeratuko dira Zuzendaritza Batzordeko kideak. Hautatzeko finkatutako eguna baino hogeita hamar egun lehenago aurkeztuko dira zerrendak.

62. artikulua.- Balio duten hautagai zerrendak onarturik, boto eskubideko bazkideei jakinaraziko zaizkie, Elkarteko iragarki oholean agertuz.

63. artikulua.- Posta bidezko botoa onartuko da, baldin eta kartazalean igorlearen izena agertzen bada eta barrenean. botoa nori ematen zaion eta boto emailearen sinadura autografoa badaude, Nortasun Agiri Nazionalaren eta bazkide txartelaren fotokopiak barne.

64. artikulua.- Boto gehien jasotzen duen zerrendako lagunak izanen dira hautetsiak Zuzendaritza Batzorderako, eta presidente, zerrendan kargu horretarako ageri den bazkidea, eta Batzarre Orokorreko konpromisario, kargu horretarako boto gehien ateratzen duten bazkideak.

65. artikulua.- Zuzendaritza Batzorderako hautagai zerrenda bakar bat besterik ez badago, bozketa beharrik Gabe aldarrikatuko da.

Halaber, hautetsi aldarrikatuko dira konpromisarioetarako izangaiak haien korpua 33ra iristen ez bada boto eskubidea duten mila bazkideko talde bakoitzeko.

66. artikulua.- Zuzendaritza Batzorderako hautagai zerrendarik aurkezten ez bada, hauteskundeak bere horretan geratuko dira, baita konpromisarioetarakoa ere, eta lehengo Zuzendaritza Batzordeak jarraituko du harik eta lau hilabeteko epean hauteskunde berriak egin arte. Bigarren kasu horretan ere hautagai zerrendarik aurkezten ez bada, Zuzendaritza Batzordeko kideak, hamar denetara, zozketak aukeratuko dira eskubide osoko bazkideen artetik eta haiek aukeratuko dute Batzordeko burua.

Nahitaez bete beharko dira horrela hautatutako karguak.

VII. TITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA ONDAREA

1. Kapituluak. Araubide ekonomikoa

67. artikulua.- Hauek dira Elkartearen baliabide ekonomikoak:

- Bazkide berrien sarrerako kuotak.
- Aldian aldiko kuota arruntak.
- Ekarpen bereziak, Batzarre Orokorrek onetsitakoak.
- Haren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen etekinak.
- Edozein iharduera zilegitik lortzen diren dirusarrerak.
- Lege barruan har daitezkeen dirulaguntza, legatu eta dohaintzak.

68. artikulua.- Urtero prestatuko da aurrekontua: Zuzendaritza Batzordeari dagokio hura prestatzea eta Batzarre Orokorriari onetsi, ezetsi edo zuzentzea.

69. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak Batzarre Orokorriari aurkeztuko dizkio aurreko ekitaldiko likidazioa eta balantzea, hari baitagokio onestea.

70. artikulua.- Elkarateak bere baliabideak aplikatuko ditu bere xedeak bete daitezzen, Estatutuetan ezarritakoari jarraituz. Bere ondasunak xede industrial, komertzial, profesional edo zerbitzukoetan edo horrelako ihardueratan erabiltzekotan, atera daitezkeen mozkinak oso-osorik aplikatu beharko dira helburu soziala lortzeko eta, inola ere, onurak bazkideen artean banatzeko.

2 kapitulua. Ondarea

71. artikulua.- Donibane Kirol Elkartea da bere ondarea osatzen duten ondasun, instalazio, eskubide eta betebeharrak guztien titular eta jabe bakarra.

Behar den liburuan jasoko da zehatz-mehatz, inbentario bidez, ondare multzo osoa, baita horren ebaluazioa ere lau urtetik behin eguneratuko dena.

VIII. TITULUA. BAZKIDE IZAERA BESTE BATI UZTEKO ESKUBIDEA

72. artikulua.- Bazkide guztiek dute eskubidea beren izaera bazkide ez diren beste batzuei uzteko, lagapenaren zenbateko ekonomikotik zati bat eskuratuz.

Bazkide berrien sarrera-kuota da, zein bere kategorian, hartzaileak ordaindu beharreko zenbateko ekonomikoa, Zuzendaritza Batzordeak finkatua duena.

Zuzendaritza Batzordeak, arrazoitutako erabakiaren bitartez, bertan behera utzi ahalko du aldi baterako eskubide horren erabilera, harik eta, dauden edo egin daitezkeen instalazioen arabera, Elkarateak dituen behar ekonomikoen arabera, edo komeni zaizkion arrazoiak direla eta, bazkide kopuru egokia erdietsi arte. Erabaki horren berri eman beharko du ondoren egiten den lehenbiziko Batzarre Orokorrean.

73. artikulua.- Bazkide izaera beste bati uzteko eskubidea erabili ahal izateko, bazkide ez den hartzaile bat beharko da, itxaron zerrendan dagoena, haren maila edo kategoriako bazkide bihurtuko dena. Bazkide izaera eskuratzen duen hartzaileak, finkatuako diru kopurua eman beharko dio Elkarteari, sarrera gisa, eta Elkarteari dagokio bazkide izan denari eskubide horren zenbatekoa likidatzea.

74. artikulua.- Bazkide izaera beste bati uzten diotenen jasoko dituzten zenbatekoak ateratzeko, sarrera gisa finkatutako diru kopurua, bazkidearen antzintasunaren arabera koefiziente hauekin biderkatu beharko da:

Antzintasun urteak	Koefizienteak
1.....	0,700
2.....	0,650
3.....	0,600
4.....	0,550
5.....	0,500
6.....	0,450
7.....	0,400
8.....	0,350
9.....	0,300
10.....	0,250
11.....	0,200
12 edo gehiago,	0,150

IX. TITULUA. ELKARTEAREN LIBURUAK

75. artikulua.- Elkarteak zerrenda honetako liburuak edo euskarri informatikoak erabili beharko ditu:

1. Bazkideen erregistroko liburua, haien izen-deiturak, Nortasun Agiri Nazionalaren eta bazkidearen zenbakiak, Elkartean dituzten ordezkariak, gobernu edo administrazioko karguak, baldin badituzte, alta eta baja egunak zehazturik, baita Elkartean duten karguaren jabetza hartzea eta kargu uztea era ezarri zaizkien zehapenak adieraziko dituen.
2. Akta liburua, Batzarre Orokoarren eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretako neurriak jasoko dituen. Zuzendaritza Batzordeko presidentek eta idazkariak sinatuko dituzte aktak.
3. Kontabilitate liburua eta ondasunen inbentarioarena, Elkartearen ondarea, eskubide eta obligazioak eta dirusarrera eta gastuak agertuko dituztenak. Batzuk nondik datozen eta besteak zertan inbertitzen diren zehaztuko da, legeria aplikagarriaren arabera.

X. TITULUA. ELKARTEA DESEGITEA

76. artikulua.- Bazkideen borondatez, bere helburuak bete ezin dituelako edo auzitegiko epai irmoa dela eta desegin ahalko da Elkartea. Lehenbiziko kasuan, Batzarre Orokor bereziak hartutako erabakia beharko da, bildutako bazkideen hirutik biren botoarekin eta Batzarre Orokorreko kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua badira, beti ere.

77. artikulua.- Batzarre Orokorrek desegitea erabakitzen badu, bost kideko Batzorde Likidatzailea izendatuko du. Beren artean aukeratuko dute presidentea eta dauden fondoan kargu eginen dira, Elkarteak bere obligazioak betetakoan, gerakinik izanez gero, haien jabetza Iruñeko Udalarari emateko.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Estatutu hauek, bazkideen Batzarre Orokorak behin-betikoz onetsirik. eta legez dagokien Administrazio Erregistroan inskribatu eta gorderik, aurrekoen ordezkioak izanen dira, haiek indarrrik gabe geratuko baitira.

Jesús Faber Ruiz, Iruñeko Antso Azkarra kalean z.g. helbidea duen Donibane Kirol Elkarteko idazkariak,

ZIURTATZEN DU:

Donibane Kirol Elkartearen urteko aurrekontua aldakorra dela, mugarik ez duela eta urtero egiten dela, Elkartearen Estatutuetako 68. artikulua zehazten duenari jarraituz, eta 1995.eko ekitaldian 177.815.175 pezetakoa dela,

Halaber. Elkartearen ondasun, instalazio, eskubide eta obligazio guztiak osatzen dute bere ondarea, Elkartearen Estatutuen 71. artikuluan ezarrita den bezala, eta gaur egun 818.126.987 pezetakoa da horren balorazio ekonomikoa, urtero bere aldaketak dituen. Behar diren ondorioetarako hala ager dadin, honako ziurtagiri hau sinatzen dut Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko abuztuaren hogeita bederatzian,

Stua., José M^a Cornpains Rolan
Presidenteak ontzat emana,

Stua ., Jesús M^a Faber Ruiz
Donibane K.E.ko idazkaria

Jesús M^a Faber Ruizk, Iruñeko Antso Azkarra kalean, z.g. helbidea duen Donibane Kirol Elkarteko idazkariak

ZIURTATZEN DU:

Erantsita diren Estatutuen testua bat datorrela Donibane Kirol Elkartek 1995eko ekainaren 17an egindako Batzar Orokor Berezian hartutako erabakiarekin, non Elkartearen Estatutuen testu berri osoa onetsi eta aurrekoa indargabetu baitzen.

Ziurtatzen dut, behar diren ondorioak izan ditzan, Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko abuztuaren hogeita bederatzian.

Stua., José M^a Cornpains Rolan
Presidenteak ontzat emana,

Stua ., Jesús M^a Faber Ruiz
Donibane K.E.ko idazkaria